



Leioako Kartel  
Lehiaketa  
San Juan 2009



## PARTE-HARTZAILEAK

Interesa duten pertsona guztiak aurkeztu ahal izango dira lehiaketara. Parte-hartzaileek nahi beste kartel aurkeztu ahal izango dituzte lehiaketara, lelo desberdinekin, baina saritu gabeak izan behar dute.

## LANEN AURKEZPENEA

- Teknika libre.
- Koloretan edota zuri-beltzean.
- Neurriak: 30 x 40, euskarri zurrunean.
- Euskarri digitala (jpg, tiff), halakorik balego.

Era berean, nahitaez agertu behar du Leioako jaietako ohiko motibo eta bereizgarriren batek.

Jaiekin zerikusirik ez duten kartelak baliorik gabe utziko ditu epaimahaiak.

## LANAK JASOTZEA

Lanak Leioako Udaleko Kultura Sailean entregatu behar dira:

### KULTUR LEIOA

Jose Ramon Aketxe plaza 11-4. solairua

48940 LEIOA

Tel.: 94 607 25 78

Lanetan ezin izango da jarri ikusteko moduan ez egilearen izenik ez identifikazio-daturik. Kartelaren aurrealdean joango den gutunazalean haxe adierazi behar da:

KARTEL LEHIAKETA: SAN JUAN 2009.

Gutunazalaren barruan honako informazio hau eman behar da:

- Izena eta abizenak
- Adina
- Helbidea
- Telefonoa

## **LANAK ONARTZEKO EPEA**

Lanak aurkezteko azken eguna 2009ko apirilaren 24a da, ostirala.

## **TESTUAK**

Karteletan derrigorrez jarri beharko da testu hau:

LEIOA

SAN JUAN JAIK 2009

## **SARI BANAKETA**

Saria 2009ko maiatzaren 10ean (igandea) emango da, 18:00etan, Kultur Leioako 5. solairuan.

Saria eman gabe utzi ahal izango da, proiektuek ez badute behar besteko kalitaterik.

## **SARIAK**

Lehiaketaren sari bakarra 800 €koa izango da.

## **ERAKUSKETA**

Aurkeztutako lanen erakusketa Kultur Leioan izango da.

## **KONPROMISOA**

Udalak proiektu irabazlea erreproduzitzeko konpromisoa hartzen du, bai jaietako kartelean baita egitarauaren portadan ere.

Horretarako, epaimahaiak lanaren erreprodukzio egokia bermatuko duten aldaketak egitea iradoki diezaioke irabazleari.

## **JABETZA**

Saritutako lanak Leioako Udalaren jabetza izango dira, eta Udalak eskubidea izango du lanak erakusteko, erreproduzitzeko edo argitaratzeko. Hori eginez gero, ezin izango da egile-eskubiderik eskatu.

## **LANAK ITZULTZEA**

Erakusketa amaitu eta hurrengo 30 egunetan, saririk jaso ez duten lanak itzuliko dira.

Epe horretan jasotzen ez diren lanak Udal jabetza eta artxibora pasatuko dira.

Antolatzaileek arreta handienaz zainduko dituzte entregatutako lanak, baina lanak galdu eta kaltetuz gero, ez da horren erantzule izango.

## **OHARRAK**

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek erabat onartzea dakar.